

Ermuko Udala

Toki Garapeneko Alorra



Jardueren memoria

2012. urtea

Aurkibidea

1	SARRERA	2
2	ALORRAREN AURKEZPENA	2
2.1	MISIOA	2
2.2	IKUSPENA	2
2.3	BALIOAK	2
3	ERAKUNDEAREN EGITURA	2
3.1	ERAKUNDEAREN EGITURA	2
3.2	NON GAUDE?	2
3.3	ZERBITZUEN ORGANIGRAMA	7
3.4	GAUZATUTAKO AURREKONTUA	8
4	TOKI GARAPENeko ALORRAREN ESKU-HARTZEAK 2012.....	9
4.1	PERTSONENTZAKO INFORMAZIOA ETA ARRETA	9
4.1.1	<i>Enplegu-zentroa</i>	9
4.2	GAITASUN PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA PRESTAKUNTZA:	10
4.2.1	<i>Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa (PCPI)</i>	10
4.2.2	<i>Enplegua lortzeko prestakuntza</i>	11
4.3	GAITASUN PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO ORIENTAZIOA	13
4.3.1	<i>Gizarte- eta lan-orientazioa</i>	13
4.3.2	<i>Enplegurako bitartekotza Eskariak kudeatzea</i>	13
4.3.3	<i>Etengabeko Ikaskuntza Zerbitzua (EIZ)</i>	14
4.3.4	<i>Gizartean eta Lanean Txertatzeko Herriko Plana 2012</i>	14
4.3.5	<i>Lanean txertatzearen emaitzak</i>	14
4.4	EKONOMIA SUSTATZEA	16
4.4.1	<i>Ekonomiaren egungo ehuna indartzea (industria eta merkataritza)</i>	16
4.4.2	<i>Dibertsifikazioa</i>	17
4.4.3	<i>Enpresa-sena sustatzea</i>	18
4.4.4	<i>Zeharkako lanak.</i>	19
4.4.5	<i>PROMOSA</i>	20
4.5	ZEHARKAKO PROIEKTUAK	22
4.5.1	<i>Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna</i>	22
4.5.2	<i>Kalitatea</i>	22

1 SARRERA

Honako dokumentu hau Toki Garapeneko Alorrak 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako jardunaren balantze labur bat da. Alor hori sortu izanaren arrazoia eta daukan egitura ere agertzen da.

2 ALORRAREN AURKEZPENA

2.1 Misioa

Ekonomia sustatzeko proiektuak eta enplegu-politika aktiboak garatzen ditugu, inguruko pertsonen eta enpresen premietara egokituak, tokiko/udaleko estrategia batean oinarriturik.

2.2 Ikuspena

Berdintasunean oinarritutako gizarte-eredu berri bat lortzea, enplegu osoa eta bizi-kalitate handia bilatzen duena. Talde-lan sortzailea, berritzailea eta eraginkorra.

2.3 Balioak

- Etika
- Gogobetetasuna
- Konpromisoa
- Enpatia
- Sormena / Aldaketaren onarpena / Berrikuntza.

3 ERAKUNDEAREN EGITURA

3.1 Erakundearen egitura

Toki Garapeneko Alorrak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie udaleko herritarrei, denak ala denak enpleguarekin eta hura bultzatzeko neurriekin lotuak. Espezializatutako eta diziplina anitzeko talde batek eskaintzen ditu zerbitzu horiek.

Honako hauek dira gure zerbitzu orokorrak:

- Jendeari informazioa eta arreta ematea
- Ekonomia sustatzea
- Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea
- Enplegurako bitartekotza egitea



3.2 *Non gaude?*

Zerbitzu orokorrak:
Bizkaia etorbidea, 15
48260 Ermua
Telefonoa: 943179151
Faxa: 943179388
e-maila: dl@udalermua.net

[Web-orria](#)



Izarra Centre
Zeharkale 34 eta 36
48260 Ermua
Telefonoa: 943179018
Faxa: 943176148
e-maila: jlorenzo@udalermua.net

Enpresak Prestatu eta Sustatzeko
IzarraZentroa
Zeharkale 34
48260 Ermua
Telefonoa: 943176148
Faxa: 943 176909
e-maila: centroizarra@udalermua.net




Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxea
Osma auzoa z/g
48269 Ermua
Telefonoa: 943176422
Faxa: 943176909
e-maila: cipmallabia@udalermua.net

"Artamendi" Praktika Konplexua
Artamendi auzoa z/g
48.260 Ermua




3.3 Zerbitzuen organigrama.



3.4 Gauzatutako aurrekontua.

2012AN GAUZATUTAKO AURREKONTUA		
ERAKUNDEA	GASTUAK	%
UDALA	2.943.045,92	% 78,86
EUSKO JAURLARITZA	631.913,00	% 16,93
SPRI	71.000,00	% 1,90
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	45.000,00	% 1,21
BBK	6.000,00	% 0,16
Bestelakoak	34.850,00	% 0,93
Guztira.....	3.731.808,92	% 100,00



4 TOKI GARAPENeko ALORRAREN ESKU-HARTZEAK 2012

4.1 Pertsonentzako informazioa eta arreta

12.780 pertsonari eskaini zaie arreta, 7.145 emakumeak eta 5.635 gizonak.

4.1.1 Enplegu-zentroa

2011n inauguratu genuen Ermuko Enplegu Zentroa. 2012ko ekainaren 30era arte, Lanbidek lagundu zuen diruz. Hortik aurrera eta gaur egunera arte, Udalaren gain ari da lanean. Gune fisiko egonkor horretan, langabeen eskura jartzen dira informazioari buruzko autokontsulta-tresnak, enplegua bilatzeko baliabideak, bai eta orientatzaile baten babesa ere lan-munduan sartzeko eta horretarako tresnak erabiltzen laguntzeko.

Era horretan, laguntza ematen zaie enpleguaren bida dabiltzanei edo daukaten enplegua hobetu nahi dutenei. Aurten **2.433** pertsonari eskaini zaie arreta (**1.729 gizon eta 704 emakume**).



4.2 Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea Prestakuntza:

Prestakuntza-proiektuak nahiz prestakuntza- gehi enplegu-proiektuak garatzen dira, gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko asmoz.

4.2.1 Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa (PCPI)

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programei esker, DBHko oinarrizko gaitasunetara iristen ez diren 16 eta 18 urteko ikasleek -eta, beraz, DBHko titulurik ez dutenek- oinarrizko lanbide-prestakuntza jaso ahal dute. Era horretan, kalitatezko lana lortzeaz gain -I. Mailako Hasierako Lanbide Prestakuntza lortzen dute ikasitako espezialitatean-, hezkuntza arautuan ikasten jarraitzeko aukera dute, jasotako prestakuntzaren bidez DBHko Graduatua atera baitezakete, edota Erdi Mailako Heziketa Zikloetarako sarbide-proba gainditu.

Espezialitate hauek eskaintzen dira: Ile-apaindegiko Laguntzailea, Fabrikazio Mekanikoko Langilea eta Ibilgailuen Konponketako Laguntzailea

Zentroan gizarte-integratzaile bat dago eta hark, hezkuntza-komunitateko pertsonen arteko harremanetan laguntzeaz gain, gizarte-heziketako proiektua garatzen du. Proiektu hori Zentroko Curriculum Proiektuan dago integraturik, eta integratzaileak tutoretza eta bitartekaritza erabiltzen ditu ikasleen alderdi pertsonalak eta laboralak garatzeko. Gainera, familia barruko giroa eta harremanak hobetzeko alderdiak lantzen ditu familiekin. Proiektuari laguntzeko balio dute udalaren beste alorrekiko koordinazioak eta lankidetzak, gizarte-heziketako lantaldeak eta udalaren baliabideek. Azken urte honetan, gizarte-eta hezkuntza-proiektuak honako esku-hartze hauek egin ditu, besteak beste:

- Familien arteko hiru Topaketa.
- Jarrera eta gaitasun pertsonalak, sozialak eta laboralak garatzeko 96 jarduera.
- Identibuzz proiektua.
- Udaleko baliabideen koordinazioa eta partaidetza: Kulturartekotasuna geletan izeneko programa, Immigrazio Sailarekin; sexualitatea

PCPI 2011/2012 ETA 2012/2013					
ESPEZIALITATEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	ORDUAK GUZTIRA	TALDE- KOPURUA
Ibilgailuen mantentze-lanak 1 eta 2. 2011/2012	27	2	29	1.730	2
Fabrikazio mekanikoa 1 eta 2. 2011/2012	26	0	26	1.730	2
Ile-apainketa eta estetika 1 eta 2. 2011/2012	0	27	27	1.730	2
<u>Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak, 2011/2012</u>	53	29	82	5.190	6
Ibilgailuen mantentze-lanak 1 eta 2. 2012/2013	30	1	31	700	2
Fabrikazio mekanikoa 1 eta 2. 2012/2013	27	1	28	700	2
Ile-apainketa eta estetika 1 eta 2. 2012/2013	0	31	31	700	2
<u>Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak, 2012/2013</u>	57	33	90	2.100	6
<u>Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak GUZTIRA</u>	110	62	172	7.290	12

eta familia-plangintza, osasun-zentroarekin; berdintasuna, udaleko berdintasun-batzordean parte hartuz; lan- eta gizarte- orientazioa, Udaleko orientazio-zerbitzuekin; alkoholaren kontsumo arduratsua Mimarte programaren bidez, Udaleko Droga-mendetasun Sailarekin eta Irudi Biziak programarekin, etab.; Garrebil proiektua, gatazkak konpontzeko.

4.2.2 Enplegua lortzeko prestakuntza

Lanean ari direnei nahiz langabeei eskaintzen diegu lan-merkatura egokitutako prestakuntza, erantzun bat eman nahian enpresen produktibitate- eta lehiakortasun-eskakizunei eta langileen sustapen profesionaleko eta garapen pertsonaleko asmoei, lanerako prestatuta eta lanean hasteko moduan egon daitezten.

Honako hauek dira Prestakuntza Zerbitzuaren lan-lerro nagusiak:

- **Enplegurako Lanbide Prestakuntza**

Enplegurako Lanbide Prestakuntzako ikastaroak ematen dira, ikasleak gaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren Katalogo Modularrean edo Profesionaltasun Ziurtagirietan oinarrituta. Horien osagarri da Lantokietako Prestakuntza, edo lan-praktikak, esperientzia lortzeko.

- **Makineria Eskola**

Ermuko Udalak “*Obra publikoko, altxatzeko eta garraiatzeko makineriaren mantenu- eta operazio-eskola*” sortu du, eta bertan integratzen dira lurrak mugitzeko, altxatzeko eta garraiatzeko makinien mantenu- eta operazio-lan guztiak.

Helburuak:

Makineria Eskolaren helburu orokorra da sektorea dibertsifikatzea eta herria garatzea, Obra Publikoko eta Meatzaritzako Operazio eta Mantenu Lanetan espezializatuta. Horri begira egiten dira jarduera hauek:

- **Prestakuntza:**

1. Enplegurako Prestakuntza eta Lantokietako Prestakuntza
2. Enplegua/Prestakuntza
3. Irakasleen prestakuntza
4. Lan-arriskuen prebentzioa

- **Merkatua**

1. Merkatu-azterketa
2. Sektore-azterketak
3. Laneko bitartekaritza
4. Enpresak sortzeko laguntza

- **Azpiegiturak**

1. Azpiegiturak egokitzea eta aprobetxatzea
2. Makineria egokitzea, berregitea eta mantentzea

- **Lankidetzak**

1. Zentro, Enpresa eta Fundazioekin
2. Prestakuntzarako metodologia didaktikoa sortzea

- **Ikerketa eta Garapena**

1. Simulazio Testa
2. Lan-arriskuak prebenitzeko material didaktikoak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA					
<i>ESPEZIALITATEAK</i>	<i>GIZONAK</i>	<i>EMAKUMEAK</i>	<i>GUZTIRA</i>	<i>ORDUAK GUZTIRA</i>	<i>TALDE- KOPURUA</i>
Lan Arriskuen Prebentzioa. Meatzaritzako segurtasuna. 2012	63	0	63	120	6
LANBIDE PRESTAKUNTZA. Meatzaritzako makinekin aritzea eta mantentze-lanak egitea. 2012.	2	7	9	16	1
Enpresa-kudeaketa	2	5	7	30	1
GUZTIRA	67	12	79	166	8



4.3 Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea Enplegurako eta prestakuntzarako orientazioa

4.3.1 Gizarte- eta lan-orientazioa

Enplegurako eta prestakuntzarako orientazio-zerbitzuari esker, banakako estrategiak landu ahal dira: orientazio- eta informazio-faseak, lan-munduan sartzen laguntzeko banakako ibilbideak diseinatzea, ibilbide hori martxan jartzeko prestakuntza-edota enplegu-baliabideak

erakustea, eta esku-hartzearen fase guztietan zehar laguntzea, bai eta ondoren ebaluatzen eta jarraipena egiten ere.

Lankidetzan estua dago Udaleko Gizarte Zerbitzuekin. Diziplina anitzeko lantalde bat sortu da horretarako, eta hura koordinaturik dago inguruko gizarte-zerbitzuen sare guztiarekin.

Orientazioa lan- eta gizarte-mailakoa da, hau da, ikuspuntu multidimentsional batetik egiten da lan pertsonekin, bizitzaren alor guztietan, batik bat lanean eta gizartean txertatzeko prozesuetan. Horrekin batera, banakako ibilbideak prestatzen dira, lanean eta gizartean txertatzeko. Horiek martxan jartzen diren bitartean, gizarte-alorreko profesionalak laguntzen diote pertsonari (Udaleko Gizarte Zerbitzuen Alorraren bidez), bai eta lan-

alorreko profesionalak ere (Toki Garapeneko Alorraren bidez).

Jarduera hori burutu ahal izateko, bolada batzuetan diru-laguntzak eman dituzte Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak edo Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak, eta beste batzuetan jarduera berdina egin da Udalaren baliabideak erabiliz.

ENPLEGURAKO ORIENTAZIOA				
2012KO JARDUERAK	GIZONAK	EMAKUM EAK	GUZTIR A	SAIO-KOPURUA
Banakako tutoretza	367	322	689	1172
Talde-lana: Enplegu-bilaketa aktiboa	48	62	110	9
Talde-lana: Elkarriketa-tailerra	55	44	99	6
Talde-lana: Autoenplegurako informazioa eta motibazioa	9	7	16	1
Talde-lana: Alderdi pertsonalak	20	18	38	3

4.3.2 Enplegurako bitartekotza Eskariak kudeatzea

Helburua: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan

LANBIDE: BITARTEKARITZA – ESKARIA				
2012KO JARDUERAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	SAIO-KOPURUA
Eskaria eguneratzea	299	249	548	675

enplegua edo prestakuntza eskatzen dutenen lanbide-profila egokitzea, aukerarik onenak izan ditzaten. Ikusi taula.

Pertsonen eskaria egokitzearekin batera, beren profilaren araberrako enplegu-eskaintzen berri ematen zaie, eta Lanbideko plataforma digitalaren bidez gehitzen dira hautagaitzak.

ETENGABEKO IKASKUNTZA-ZERBITZUA (EIZ)			
2012KO JARDUERAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Prestakuntzarako Orientazioa - Etengabeko Ikaskuntza Zerbitzua (SAP)	176	159	335

Programa hau abiarazteko, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Alorretik Toki Garapeneko Alorrera bideratzen dira hasierako diagnostikoaren arabera gizarte- eta lan-mailako esku-hartzea behar dute pertsonak. Toki Garapeneko Alorrak diseinatzeko dituzten pertsona bakoitza gizartean eta lanean txertatzeko estrategiak.

** *Oharra:* Esku-hartzean zehar gertatutako txertatzeak

4.3.3 Etengabeko Ikaskuntza Zerbitzua (EIZ)

Helburua: Herritarrei tresnak emateaprestakuntza-prozesuak martxan jarri beren burua trebatzeko, eguneratzeko edota birziklatzeko, maila pertsonalean nahiz profesionalean. Erabiltzaileei eskura jarri nahi zaizkie jakintzaren gizartearen aukera guztiak ere, prestakuntza-baliabideei buruzko informazio guztiak eskainiz.

Prestakuntza-premia kolektiboak detektatu eta haiek asetzeko ikastaroak ere antolatzen dira.

4.3.4 Gizartean eta Lanean Txertatzeko Herriko Plana 2012

Toki Garapeneko Alorraren eta Gizarte Zerbitzuen Alorraren artean finkatutako Tokiko Planaren barruan -Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren bidez-, gizartean eta lanean txertatzeko jarduerak egiten dira gizartean baztertuta dauden, baztertuta geratzeko arriskuan dauden, eta enplegua edo prestakuntza eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten herritarrekin.

GIZARTEAN ETA LANEAN TXERTATZEKO HERRIKO PLANA – 2012KO IBILBIDEEN DISEINUA			
2012KO JARDUERAK eta EMAITZAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako banakako ibilbideak	10	67	77
Enplegua bilatzeko Coaching eta Autoezagutza Tailerra	6	1	7
**Lan-merkatuan txertatzea	6	4	10

4.3.5 Lanean txertatzearen emaitzak

Lanean txertatzeko orientazio-, enplegu- eta prestakuntza-programa guztien jarraipen sistematikoa egiten du Alorrak. Jarraipen hori hainbat modutan egiten da baina, oro har, gutxienez 6 hilabetez jarraitzen da proiektu bat amaitu duen parte-hartzaile bakoitzaren ibilbidea. Beraz, ondoko datuak dira amaitu zirenetik 2012an 6 hilabete bete dituzten proiektuen emaitzak.

2012. LANERATZEARI BURUZKO URTEKO EMAITZAK %-TAN

Parte hartu zuten proiektua amaitu eta ondorengo 6 hilabeteetan lana lortu zuten parte-hartzaileen %-a.

	Parte hartu zuten gizonen guztizkotik	Parte hartu zuten emakumeen guztizkotik	Parte hartu zuten pertsonek guztizkotik
Enplegu eta prestakuntza proiektuak	%46,7	%92,3	%85,7
Enplegurako prestakuntza proiektuak	%37,1	%28,6	%35,7
Hasierako Lanbide Kualifikazioko proiektuak	%3,8	%0,0	%2,6

arte-hartzaile gisa hartzen diren pertsonak ekintzaren azken ebaluazioan gai kalifikazioa lortu eta gutxienez orduen % 50ean parte hartu dutenak dira, ebaluazioa duen prestakuntza-edota esperientzia-ekintza baten kasuan. Eta beste ekintza batzuen kasuan, gutxienez orduen % 50ean parte hartu dutenak

Orientazio proiektuak	%0,0	%6,3	%4,5
Esperientzi profesionaleko proiektuak	%24,4	%30,8	%27,4
GUZTIRA	%25,2	%30,7	%27,4

* Kasu honetan, Soziorabial Inklusiorako Planaren barnean parte hartu duten pertsonak kontuan hartu dira. Hau da, 6 gizon eta 16 emakume.

4.4 Ekonomia sustatzea



Ermuko Toki
Garapeneko
Alorraren
betekizunen artean
dago herriko

ekonomia-ehuna lehiakorrago egiten laguntzea, industriaren eta merkataritzaren sektorea indartuz, eta herriko ekonomia dibertsifikatu ahal izateko sektore berritzaileak sustatuz. Ekonomia sustatzeko zerbitzuak babesa ematen die sektoreei, baliabideak eta jakintza eskainiz, eta denetariko proiektu kooperatiboak bultzatuz.

Gure jardueren baitan, ekonomia sustatzeko alorrak bi jardun-lerro ditu, ahalik eta zerbitzurik zabalena eskaintzeko asmoz. Alde batetik egiturazko jarduerak, denboran zehar nahiko egonkorrak, eragileekiko konfiantzan oinarritutako zerbitzu jarraitu bat eskaintzeko. Ildo horretakoak dira lan-ekintzak kudeatzeko zerbitzuak, enpresei laguntzeko zerbitzuak, gizarteko eta ekonomiako eragileekiko harremanak (adibidez, ikastetxe, teknologia-zentro eta beste garapen-erakunde batzuekin), edo Toki Garapenaren Astea antolatzea.

Beste zenbait ekintza, berriz, egoera zehatzen mende daude, hala nola beste erakunde batzuen parte-hartzea, ekitaldi jakinak ospatzea edo beste finantza-erakunde batzuek proiektuak onartzea.

Izan ere, udal-erakundeek oraindik ez dutenez mota horretako zerbitzuak egiteko lege- eta finantza-eskumenik, baliabideak oso mugatuak

dira. Gure kasuan, jarduerak bi bidetatik finantzatzen dira: udalaren baliabideetatik eta norgehiagoka-ekitaldietan parte hartzetik.


Ermuko Udalak bere baliabideekin herriko ekonomia dinamizatzea erabaki du, nahiz eta ez izan udalen ohiko lan-esparrua, herriko erakundeak direlako administrazioaren erreferenterik hurbilenak enpresentzat eta pertsonentzat, eta interes berak dituztelako. Hori horrela, gizartearen eta ekonomiaren ehunetik hurbil egotea funtsezkoa dela uste dugu herria bultzatzeko.

Hona hemen zerbitzuaren jardun-lerroak:

1. Ekonomiaren egungo ehuna indartzea
2. Ekonomia dibertsifikatzea
3. Ekintzaile-sena sustatzea

4.4.1 Ekonomiaren egungo ehuna indartzea (industria eta merkataritza)

Amaierako helburua da enpresei ekonomiaren beharretara egokitzen laguntzea, lehiakortasuna etengabe hobetuz. Horretarako, ekonomia sustatzeko zerbitzuko arduradunek sarean lan egin, jakintza bildu eta enpresak hobeto egokitzeko proiektuak bultzatzen dituzte. Eremu horretako lanak **hiru ildo** ditu:



dela helburu partekatuak edukitzeko.
2012ko berriazko proiektuak:

▪ **Sentsibilizatzea.**

Zenbait testuingurutan beharrezkoa den jakintza eskaini nahi da, enpresek funtsezko informazioa jaso dezaten lana antolatzeko eta zerbitzuak emateko modu berriei buruz.

- **Jardunaldiak eta mintegiak:** hainbat hitzaldi antolatu ditugu berrikuntzaren inguruan, eta eremu horretako profesional handiak ekarri ditugu Ermura. 2012ko Toki Garapenaren Astean zientzia eta teknologia aplikatuaz hitz egin zen, ETEak nazioartera zabaltzeaz, eduki digitalez eta jendeari arreta emateko aukera berriez.

▪ **Lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.**

Ekonomia sustatzeko zerbitzuaren proiektuek bi lerro nagusi dituzte beti: lankidetzaren eta emaitzen praktikotasuna. Ildo horretan, gure nahia da enpresek kudeaketa-eredu berriak edukitzea, produktu berriak garatzea edo merkatu berriak bilatzea, baina beti enpresen arteko lankidetzaren oinarrituta.

- **Enpresen arteko lankidetzaren eta eraldaketa sustatzea.** Enpresen arteko lankidetzaren enpresa bakoitzaren garapenetik haratago joatearen alde aritu gara, bai eta enpresen lan egiteko modu berriak zabaltzearen alde ere. Inoiz baino nabariagoa da balioa gehitu beharra dagoela gero eta zabalagoak diren merkatuetan, eta konfiantza funtsezkoa

- **COOPERA proiektua** - SPRIren COMPITE programa
- **TRANSTEC proiektua** - SPRIren COMPITE programa
- Merkataritzarako **PERCO garatzea**

▪ **Enplegu-eskaintzak kudeatzea**

Lanbiderekin lankidetzaren aritzen garenez, pertsonak kontratatu nahi dituzten enprekin hitz egin eta enplegurako bitartekaritza-sistema publikoan (Lanbide) sartu ditugu datu horiek, eskaintzak kudeatzeko.

2012an zehar kudeatutako eskaintza-kopurua: 21

ESKAINZAK	
KUDEATUTAKO ESKAINZAK	21
KUDEATUTAKO LANPOSTU-KOPURUA	21
KONTRATATUTAKO GIZONAK	4
KONTRATATUTAKO EMAKUMEAK	1
GUZTIRA KONTRATATUAK	5

4.4.2 Dibertsifikazioa

Ermuko ekonomia oso loturik dago automobil-osagaien sektorearekin. Horrek mendekotasun handia sortzen digu enplegua sortzeko orduan, sektore hori nazioarteko merkatu oso lehiakor baten mende baitago eta marjinak gero eta estuagoak dira. Ildo horretan, Ermuko Udalak hainbat urte daramatza ekonomia dibertsifikatu nahian balio erantsi handiko sektore teknologikoetarantz, automobilgintzaren hain



mende ez daudenak.

- **Hirugarren sektorea garatzeko plana eta teknologien mintegia.**

Hainbat urtetarako proiektua da eta, teknologiaren sektoreko enpresentzako azpiegiturak indartzeaz gain, lanean laster hasteko zerbitzuak eta baliabideak abiarazi nahi ditu. Jarduera horrek helburu hauek ditu:

- Ekonomia-jarduera bultzatzea, enpresa berriak sustatuz
- Enpresen inbertsioak handitzea
- Enpresak lehiakorrago egitea
- Enpresa – Unibertsitatea – Teknologia Zentroak – Merkatua lotzea
- Talentu-ihesik ez egotea

2012an zehar, Izarra Centre-ko azpiegiturak martxan daudela, enpresa berritzaileak ekartzeaz gain eta enpresa, teknologia-zentro eta unibertsitateen arteko harremanak bultzatzeaz

gain, lan handia egin da ekintzaile-sena sustatzen.

4.4.3 Enpresa-sena sustatzea

Ekonomia sustatzeko orduan, funtsezkoa da gure herrian ekintzaile-sena sortzea. Horrek bideragarri egiten du gure ekonomia, enpresak hil ahala beste asko sortuz ekonomia osasuntsu mantentzeko. Horretarako, autoenplegua garapen pertsonalerako tresna baliagarria dela sentitu behar dute herritarrek, eta baliabide eta laguntza nahikoak eskaini behar zaizkie.

1. Autoenplegua sustatzeko lan zehatzak:

- Sustatzaileei informazioa eta aholkularitza ematea, enpresa-ekimen berriak bideratu ahal izan ditzaten.
- Interesdunei prestakuntza ematea, enpresa-ekimen berriak bideratu ahal izan ditzaten.
- Izarra Centre-ko udalaren enpresa-mintegietako azpiegiturak uztea.
- Enpresa-proiektuen lehiaketak antolatzea.

○ Enpresa-proiektuen



lehiaketa.-

Babesa eman nahi zaie Ermuan kokatu nahi duten enpresa-

- ekimenei. 2012an saria eman zitzaien atten2 enpresari (online sentsore optikoak) eta SPMG (plastikozko eta magnesiozko soluzioak).
- **Sormen- eta berrikuntza-lehiaketa.-** DBHko eta goi-zikloetako ikasleen artean zientziaren eta teknologiaren jakintza sustatu nahian, Ermuko ikastetxe guztiek parte hartu eta 25 proiektu baino gehiago aurkeztu zituzten.
 - **BEINN.-** Mondragon Unibertsitateak emandako ikastaroa, ekintzaile-senari, berrikuntzari eta lidergoari buruzkoa, talde-lanaren bidez eta “learning by doing” delakoaren bidez (eginez ikastea).
 - **YUZZ.-** Banesto Fundazioak herriko 80 partnerrekin eta beste lankide batzuekin bultzatutako programa honen helburua izan da ideiak dituzten gazteei prestakuntza zehatz bat eskaintzea, ekimenak garatzeko eta abiarazteko aukera emanez eta ekintzaile-sena sustatuz, enpresa-ehunari aberastasuna ematen dioten eta balio erantsia sortzen duten sektoreetan.
 - **Enpresa Kudeaketarako Ikastaroa – BFA.-** Autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren programaren baitan, Ermuko Udalak - BFAk diruz lagunduta- enpresa-kudeaketarako 30 orduko 2 ikastaro eman ditu, beharrezkoak baitira BFAk ekintzaileei ematen dien autoenplegua

sustatzeko laguntzak eskuratu ahal izateko.

- Parte-hartzaileak 30
- Egindako ikastaroak: 2
- **Sustatzaileentzako informazioa eta aholkularitza.-**
 - Aholkularitzak: 60
 - Sortutako enpresak: 10
 - Gizonak: 35
 - Emakumeak: 25

4.4.4 Zeharkako lanak.

Egoeraren arabera, gizarteko eta ekonomiako eragileek herriaren garapenean parte hartzeko ekintzak burutzen ditugu, adibidez sormena, jakintza eta berrikuntza bultzatzea, funtsezkoak baitira gizarteak eta ekonomiak aurrera egiteko. Horrela, ideia hori buruan dugula, gizarteak parte hartzeko hainbat jarduera antolatu ditu Toki Garapeneko Alorrak.

2012ko Toki Garapenearen Astea: herritarrek jakin dezaten, eta gizarte prestatuago, dinamikoago eta sortzaileago baten alde.

- Jardunaldi-kopurua: 4
- Hitzaldi-kopurua: 15
- Parte-hartzaile kopurua: 400

Ate irekiak – Izarra Centre: herritarrentzako bisitaldi irekiak, Izarra Centre-ko instalazioak in situ ezagutzeko eta eraikinari buruzko zalantzak argitzeko.

- Bisitaldi-kopurua: 5

- Bisitari-kopurua: 692

Haurrentzako **Picocriket** tailerrak.

- Egindako tailer-kopurua: 2
- Haur-kopurua: 30
- Gogobetetasun (1, txikiena - 10, handiena): 8

Lankidetza Uni Eibar- Ermuarekin (sormen-tailerrak eta proiektuen aholkularitza) eta Ermuko Prestakuntza Zentroekin.

- Egindako tailer-kopurua: 2
- Parte-hartzaile kopurua: 30
- Aholkularitza-ekintzen kopurua: 3



4.4.5 PROMOSA.

Udal-elkarte honen helburua da herriko ekonomia eta gizartea garatzeko tresna izatea, ekonomia, higiezinak, teknologiak eta abar sustatzeko ekintzak aztertuz, diseinatuz eta gauzatuz.

2012an zehar, Izarra Centre-n enpresentzako guneak sustatzen eta alokatzen jarraitu du PROMOSAk (ekintzaile-sena eta berrikuntza bultzatu nahian). Oraintxe bertan, okupazioa 1.800 m²-koa da (Aptica, Asegi Aholkulariak, Atten2, Ermua Mugi, Etorbizi, Galea Electric, Idesa Taldea, Lorea Consulting, Margube, Metiincer, Nextiraone-SafeView, Quantitas, SPMG, SPARA eta Sua Estudio) eta 168 aparkalekueetatik 48 daude alokatuta.

Gero eta gehiago erabiltzen dira ekitaldi eta jardunaldietarako guneak ere, bai eta bideokonferentzietarako guneak ere (nahiz eraikinean kokatutako enpresek nahiz Ermuko industria-enpresek).

Etorbizi, Teknika, Euskalit, Igarle edo Gaia (Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarte) erakundeek ekitaldiak egin dituzte eraikin horretan. Bertan, Mondragon Unibertsitateko Lidergo Berritzailea Graduko ikasleek emozio-sormenari buruzko prestakuntza berria jaso dute; industria-enpresek batzarrak eta bideokonferentziak, ikastaroak (adib. Beinn), Uni Eibar-Ermuko ikasleek praktikak egin dituzte bertan, edo gazte ekintzaileentzako Yuzz programa landu da bertan.

Era berean, ekintzaile-senarekin lotutako proiektuak eta programak egin dira mintegiko bi solairuetan eta Izarra Fundazioaren eskura jarritako ekintzailetasunaren aldeko gunean. 6 enpresa-proiektu berri inkubatu dira (urruneko idazmahai multimedia hodeian, hiri-irisgarritasunari buruzko plataforma, hondakin plastikoentzako ontzi aurreratuak, etab.).

2012an zehar, enpresen artean eta ermuarren artean IKTen erabilera hedatzeko eta indartzeko asmoz, zuntz optikoaren sare neutroa instalatzeko lehiaketa publikoa esleitu zen.

Zuntza zabaltzeak produktu berritzaileak eskaintzea dakar, banda-zabalera handiak eskaintzen duen kalitatean eta gaitasunean oinarriturik. Hala, enpresei, ETEei eta autonomoei emandako konexioa bakarra eta eskusiboa da merkatuan.

Enpresa operadoreek telekomunikazio-zerbitzuak emateko konpromisoa lortu da –besteak beste

telebista, telefonoa eta telefonia mugikorra, datu-komunikazioak eta sare informatikoak (adibidez, Internet)–, gure sare neutroa prezio lehiakorretan erabiltzeko moduan.

Teknologia horiek funtsezkoak dira egungo gizartean eta ekonomian, batik bat osasun-, -hezkuntza edo lan-proiektuetan. Promosa, Udaleko beste alor batzuekin eta hainbat enpresarekin lankidetzan, etorkizunean kalitatezko enplegua sortzeko proiektuak aztertzen ari da, herriko ekonomiaren ehuna dibertsifikatzeko asmoz.

Izarra Centre	
Jarduera	Metro koadroak
lokalak saltzea	140,00
2 mintegi-solairuak eta ekintzailetasun-senarentzako gunea saltzea	491,20
mintegiaren eta ekintzailetasun-senarentzako gunea alokatzea	395,35
enpresentzako gunek alokatzea	950,00
aparkalekuak alokatzea	48 plaza
Zuntz optikoa	
Proiektuaren faseak	Betetako ehunekoa
proiektua esleitzea	% 100
instalazioaren lehiaketa esleitzea	% 100
instalazioa gauzatzea	% 50

4.5 Zeharkako proiektuak

Zeharkako proiektuak, oro har, ez dira jarduera zehatzak, baizik eta gure jarduera osoari eragiten dioten helburu ezin garrantzitsuagoak. Adibidez, gizonen eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna, garapen jasagarria eta kalitatea.

- Informazioa: 8,31
- Arreta pertsonala: 8,80
- Moduak eta prozedurak: 8,18
- OROKORRA: 8,41

4.5.1 Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa bilatzen dugu lana lortzeko orduan eta lanekobaldintzetan. Ermuko Udalaren gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako III. Planaren lau ardatzak lantzen ditugu: Toki Garapeneko Alorraren programetan eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeak ahalduntzea, erantzunkidetasuna eta familia eta lana uztartzeko neurriak bultzatzea, eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako ekintzak babestea.

4.5.2 Kalitatea

Prozedurak hobetzen dihardugu, gure zerbitzuak azkarragoak eta eraginkorragoak izan daitezen. 2011tik hona, sistematikoki jaso da erabiltzaileek jasotako zerbitzuei emandako ebaluazioa. Esanguratsuak dira datu hauek:

- % 92,8k gure zerbitzuak erabiltzea gomendatuko lioke edonori
- Honako hau da faktore orokorrekin jasotako batez besteko puntuazioa (1-10):

- Instalazioak: 8,13